

AURKEZPENEA

Agosti Xahoren omenez haren sortzearen bigarren mendeurrenaren karietara, Eusko Ikaskuntzak jardunaldia antolatu du 2011ko urrian, Baionan.

Zertarako Baionan eta ez Zuberoako herri batean, adibidez, sortu den probintzian? Alde batetik, beste omenaldi batzuk baziren eta bestalde Baionak arrazoinak zituen Atharratzarren ondare izpirituala aldarrikatzeko. Agosti Xaho bizi izan zen 1844tik hil arte 1858an, urte batez salbu (1852-1853) erbestean egon zen Gasteizen. Baionako historialari handiak, Rene Cuzacq-ek idatzi zuen:

Sekulan oraino Baionak ez zuen holako motako idazlerik ezagutu; sekulan ere Baionako letrik ez zuten urgullutsu izaiteko aukerarik izan Xahoren izen famatuarengatik bezain bat¹. [eta ere] Holako hedadurako jende ospetsurik... Baionak gutti kontatzen ditu bere harresi zaharretan. Eta Agosti Xahoren izena hiriko goraipatu denetarik bat da².

Dudarik gabe Agosti Xaho da Baionako eta Euskal Herriko XIX. mendeko gizon maitagarrienetarik eta nortasun handikoetatik bat. Ainitz alde zituen eta aipa daiteke horietatik bat erromantiko esoterismoarena, Aztien erlijioaren profeta, Hego Euskal Herriko karlisten laguntzailea eta ezkerreko gizona, ezker muturrekoa Ipar Euskal Herrian, idazle oparoa hogeitaz libururen egilea, jakintsun handia nahiz eta bere jakitatea batzutan nahasia agertzen den, kazetari hika-mikazale, idazteko dohain nabarmena, luma xorrotz eta kitzikatzalea, trufaz betea, ahanzi gabe euskararen sustatzale kartsua eta begiralea.

Haren biziaren zati gehienak ezagunak dira baina ez da debalde laburki ohararaztea: Atharratzeko (Basabürüan) uxeraren semea, herri hortan sortua 1811ko urriaren 11an; 1830ean Parisen ikasle eta hor ibiltzen da erromantiko bilkuretan eta literatur geletan hala nola Charles Nodierenean Fakultateko alkietan baino gehiago. Idaztea du gogoko eta Parisen bi obra nagusi argitaratzen ditu, 25 urte ez dituelarik oraino: 35 orrialdeko liburuxka *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Christine* 1834an eta 450 orrialde baino gehiago duen liburua: *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques 1830-1835*, 1836an.

1844tik goiti, Baionan bizi da eta berehala bilakatuko da Baionako bizi politikaren gizon garrantzitsuenetatik bat; Uztaileko Monarkia eta Louis-Philippe ainitz eztabadatuko ditu, *L'Ariel*, kazetaren sortzaile eta idazle nagusia izan zen azpitolu ainitzekin –*Courrier des Pyrénées* (1844-1845), *Le Courrier de Cantabrie et de Navarre* (1845), *Le Courrier de Vasconie* (1846-1848), *Le Républicain de Vasconie* (1848-1852)– 1844ko urrian

1. René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko ekainaren 3a.

2. René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko urriaren 8a.

agertzen da 1852ko otsaila arte. Xahoren hikamikak bereziki *L'Eclaireur des Pyrénées* aldizkariarekin, « L'Eteignoir des Pyrénées » deitzen duena, famatuak egon dira.

Ber mementoan, Parisen, filosofi eta esoterismo arloetako hiru obra nagusi argitarazten ditu: *Paroles d'un Voyant* (1834), *Philosophie des Révélationes* (1835) eta *Philosophie des religions comparées* (1848).

Euskal Herriaz egiten dituen ikerketak garrantzitsuak dira ere. Historikoak dira: *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1847) elkarlanean idatzia Belzuntzeko bikontearrekin, turistikoak: *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan. Itinéraire pittoresque* (1855), baina bereziki hizkuntzari lotuak dira: *La guerre des alphabets : règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français, espagnol et latin* (1856). Lehen kazeta euskaraz osoki idatzia sortu zuen eta horregatik merezimendu handia du: *L'Arieleko* gehigarria, *Uscal-Herrico* Gaseta; baina bi zenbaki bakarrik ateratuko dira (1848ko ekainaren 30a; 1848ko uztailaren 25a).

Politika arloan Xahoren urte nabarmenak 1848ko Iraultzakoak dira, baita ere ondoko urteak Bigarren Errepublikaren hastapenak markatzen dituenak.

L'Ariel kazetarekin, Xaho 1848ko otsaileko Iraultzaren arizale nagusi bat izan zen; René Cuzacq-ek idatzi zuen:

Nola egon sendimendu gabe Agosti Xahoren suko arimaren aitzinean? Hori liteke egia historikoari huts egitea haren oldarren ez ateratzea, haren indarra, ele magikoa eta ororen gainetik sineste sutsuak eta interesgabetakoak gizon handi hau gidatzen dutenak³.

Bistan dena huts egiten du hala nola Basses-Pyrénéeseko departamenduan 1848ko apirilako 23an iragan ziren hauteskundeetan, botz batzuk bakarrik bildu zituen Baionan eta Zuberoan, eta 1848ko ekainaren 4eko zatikako botzetan ere huts egin zuen; 1848ko abenduaren 10eko presidente hauteskundeetan, Ledru-Rollin hautesle radikalaren alde kanpaina bizia eramaten du. Hauteskunde horiek Louis-Napoleon Bonaparte printzearen garaipena erakutsi zuten eta Ledru-Rollinek %4 bakarrik biltzen zituen «Hexagona» (Frantzia) osoan.

Hala ere, Xaho arrakasta nabarmen batzuk bildu zituen: 1848ko martxoan hautatua da eta 1849ko maiatzean berriz hautatua delako Baionako Garde Nazionalaren lehen Bataillon-en buruzagi (agintari): Baionako herriko hautetsia ere dago 1848ko uztailan eta Atharratzeko kontseilari orokorra 1848ko agorrilan.

1849ko maiatzaren 13an legegintzako hauteskundeetan Xahok galtzen duen aukera handiena aurkitzen da: aste bat hauteskundeak baino lehenago, Xahok ixtripu larri bat jasan zuen, Paue ondoan, zaldiak basatu ziren, eta karrosa itzuli. Xahok buruan zauri handiak ukan zituen eta beranta arte hortaz sofritu zuen. Berria kurritu zen baizik eta hil zela. Hala ere, Xahok huts egiten du 130 botzengatik. Erran behar da ere politika egoera ez zuela alde, Basses-Pyrénées departamenduan hamarretatik bederatzi eskuin muturrekoak ziren hautatuak izan eta bat baizik errepublikanoaren alde (Michel Renaud).

3. René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko irailaren 23a.

Xaho berriz aurkeztu zen 1852ko otsaileko legegintzako hauteskundeetan baina egoera politika oraino okerrago, botzetako %10 baizik du lortzen. Napoleon III-k erbestera bortxatzen du urte batez. Baionarat itzultzen da 1853an, hitza emanez ez duela gehiago politikarik egingen. Baionan hiltzen da 1858ko urriaren 23an, 47 urtetan. Julien Vinson euskaltzaleak erran zuen lehen euskalduna izan zela ehorzketa zibilak zituen; haren ehorzketa Saint-Léon hilerrian milako jendeek jarraiki zuten.

Baionan, 1884ko maiatzaren 4ko eta 11ko herriko botzen eta 1855ko martxoaren 28ko eta apirilaren 5eko herriko botzen zain egon ziren delako *Comité Républicain* garaipena lortzen ikusteko⁴. Orduan, baldintza guziak bilduak ziren Baionako karrika bati Augustin Chahoren izena emateko; hau egin zuten herriko biltzarrean 1886ko urtarrilaren 9an eta «Agosti Xaho kaia» izena eman zuten «Cordeliers kaia»-ren orde⁵.

Bainan, egiazki gauza gutti da Baionako oroitzapena elikatzeko.

Bestalde, Xahoren biziaren zati handienak ezagunak dira bainan zer dakigu haren nortasunaz? Gauza ainitz ez dazkigu Joseph Zabalok bere hitzaldian dion bezala: «Kasik gutunik gabe, bere biziko egun guzietako berririk gabe, haren biziko sekreturik garaikidekoek eman gabe...»

Autore honek emendatzen du: «Handi-mandia, harroa, zaratatsua eta gordea, sekretua, ixila: gizon bitxia...»

Haren nortasunaren misterio batzuk zilatzeke eta beste zati batzu hain ezagunak ez direnak argitarat emateko, behar liteke Baionako prentsa eta ere Basses-Pyrénées-koa 1844tik 1852 arte miatu osoki, eta lan hori egina oraino⁶.

Zer dakigu Xaho argin beltzaz (1846an «La Parfaite Réunion - Itzalgabeko Bilkura» Jarlekuaren kidea zen) salbu eta Jean Crouzet-ek utzi dituen orrialde batzuk?⁷

Zer dakigu Xahoren bizi pribatuaz? Gauza arras gutti. Joseph Zabalok haren homosexualitateaz hitz egiten du⁸ bainan frogarik gabe. Jose Maria Azcona, nafartar idazleak bere aldetik, hitz erdiz utzi du entzutea Xahok Lespes familian, etxe hortan aterbetua eta babestua izana, semea bazuela:

4. Jean-Claude Larronde, « Un siècle d'élections municipales à Bayonne (1884-1983) », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1983, 160-170 or.

5. Iker Edme Larrechea, *L'engagement politique d'Augustin Xaho durant la Seconde République*, Master lehen urtea, T.E.R. Garaikideko Historianen, U.F.R.eko letretan, Historia Departamentuan, UPPAn, Pauen, 2006, 88-91 or.

6. Fermin Arkotxak izenburu honekin *Augustin Chaho (1811-1858), parcours d'un homme de lettre basque de la Monarchie de Juillet au Second Empire* tesia egiten ari da Garaikideko Historiaz Paris 1eko Panthéon-Sorbonneko Unibersitatean eta ere XIX. mendeko Historia Ikerketa Gunean Sorbonnan eta CNRSan.

7. Jean Crouzet, *Bayonne entre l'Esquerre et le Compas*, Tome II, Jean Curutchet les Editions Harriet, Bayonne, 1987, 116-118 or. eta 163-183 or.

8. Joseph Zabalo, *Augustin Chaho ou l'Irrintzina du matin basque*, Atlantica, Biarritz, 1999, 207 or.

Lespes jaunaren etxean aterbetu izan zen maitasun ainitzekin eta ondorioz gehiegikeriekin eta errepestu eskasez Xahok erantzun zuen bereziki familia hortako pertsona bati eta bere bizian leku ainitz hartu zuena.... Duela zenbat urte, Paul Lespes jaunari bisita egin nion Baionan. Xahok olerkia eskaini zuen Lespesi «hijo mío» erranez (nere semeari). Lespesek atxikitzen zuen zuberotar filosofo handiaren bertso eta marrazki bereziaz eginikako bilduma batean⁹.

Ulertu dugu sortzez Atharraztarra denaz eta Baiones ondotik gauza ainitz aurkitzeko gelditzen direla.

Eusko Ikaskuntzak eskas batzuen betetzea buruan zuen 2011ko urriaren 8an, larunbata-ekin, bere sortegunaren bi mendeurrenaren hiru egun aitzin Baionako Euskal Museoan¹⁰, bederatzi aditu bilduz Agosti Xahoren obraz hitz egin dezaten haren omenaldian.

Ez zen besterik izaten ahal, **Battittu Coyos Etxebarne** baizik, euskaltzaina, zuberotarra Maulen sortua, **Agosti Xahoren proposamenak euskararen ortografiaz** (« Les règles d'orthographe basque proposées par Augustin Chaho ») hitz egiteko. Arau hauek 1848ko *L'Ariel*-eko bi artikuletan idatziak izan ziren (otsailaren 16an eta irailaren 28an) eta bereziki haren obra garrantzitsuan Baionan argitaratua 1856an: *La guerre des alphabets, Règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français espagnol et latin*. Hiztegi bat ondotik izan zen baina Xahok ez zuen bururatu. Xahoren idatziak heldu ziren bi apezan, Martin Duhalden (1745-1804) eta Jean-Pierre Darrigolen (1790-1820) idatzien ondotik eta emendatu ziren ber denboran Martin Hiribarren-ek (1810-1866) egin zuenari, Xahorekin adiskide eztabaidazalea izan zena, non eta aitortu zion: «Euskaldun apezak maite ditut...»¹¹.

9. José Ma. De Azcona, «Joseph Augustin Chaho», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Año IV, Cuaderno 4º, 1948, 505-506 or. [Itzulpena da aurkezpen honen egilea, JCL.]. Pierre-Paul Lespès (Paul Lespès) Baionan sortua da 1846ko agorilaren 4an; haren sortegunaren agiriak dion bezala (1846ko 239. zenbakia) Pierre Lespès agertzen da aita bezala, 33 urte, paper saltzaille, Mayou Zubia karrikan (egun Victor Hugo) 7. zenbakian bizi dena eta ama bezala haren anderea Félicité Catherine Léglon. Agosti Xahok «33 urte [sic], Idazlea» lekuko bezala izenpetu du, eta hau irringarria da, haren semea baldin bada. Paul Lespes René Cuzacq-ek izendatzen duen bezala, herabeki Xahoren «oinordeko ispirituala» (*Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko urriaren 8a), Eugene Goyheneche ziur zen Xahoren semea zela (solasaldiak aurkezpen honen egilearekin izan dituelakotz) Paueko Lizeoko ikaslea izan zen Lautréamont poetaren laguna, eta gero ikasle Pariseko Zuzenbide Fakultatean 1866an abokata izan aitzin, 1881ko apirilaren 11an Baionako epaile eta azkenean Paueko auzitegian kontseilu emaila. Baionan zendu da 1935eko apirilaren 11an. (Ikus 1935eko apirilaren 12, 15, eta 16eko, *Le Courrier de Bayonne*).

10. Gure esker beroenak nere izenean eta ere Eusko Ikaskuntzaren izenean Rafa Zulaikari, Baionako Euskal museoaren zuzendaria, jardunaldi honi ateak idekitzeagatik eta karia hortara Museoak zituen Xahoen liburuekin erakusketa antolatu dituelakotz; Rafa Zulaikak parte hartu du ere azkarki eguna ongi eramaten. Gure eskerrak ere Baionako herriko etxeari (Jean-René Etchegaray, Lehen auzapezordea eta kultura arduraduna) eta ere Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorrari diruz jardunaldi honen antolaketa lagundu dituelakotz.

11. Artikulu honetan, Pierre Lhandek erraiten du bere begi aitzinean «hamar edo hamabi gutun» dituela Agosti Xahorenak Marti Hiribarren jaun erretorari igorriak (495 or.). Egun nun dira gutun hauek? Interes handikoak iduri dute. Agosti Xahok, gutun batean, hau erran ondoren –apezen kontrakoa amorratua– adierazten du bere «maitasuna apez euskaldunenzat eta euskaldunenzat oro har» emendatzen du: «Bai, poeta agurgarria, bada onik euskaldun odolean, zeran eta apezetik filosofo askatuari, iriti desberdinak anaitasun sendimendu ospetsuenak ez ditu desagertzen. » (500 or.).

Xipri Arbelbidek, bere hitzaldian, **Xaho eta Bigarren Errepublika Baionan**, («Chaho et la Seconde République à Bayonne») Xahoren biziaren zati garrantzitsu bat aipatzen du. Badakigu nolako lekua Xahok izan duen 1848ko otsaileko egunetatik goiti, Baionan bereziki *L'Ariel* kasetan idazten zuelagatik. Idazleak labur izan den bigarren Errepublikaren zati garrantzitsuak erakusten ditu eta aztertzen ditu bat bestearen ondotik, 1848ko apirilaren 23ko izan ziren hauteskundeak Batzorde Konstituzionalean, presidentearen hauteskundeetan 1848ko abenduaren 10an eta lege biltzarreko 1849ko maiatzaren 13an. Hitzaldia bururatzen da Xahoren adiskidearekin, Honore Dindaburu, notario eta Bunuzeko auzapeza, Iholdiko kantonamenduko kontseilari orokorra¹².

Agosti Xaho eta Historiaren Filosofia («Augustin Chaho et la Philosophie de l'Histoire») hitzaldian, **Xabier Zabaltza Pérez-Nievas**-ek, historialariak eta nafartar idazleak, Tudelan sortua, haren ideologiaren iritzi garrantzitsu batzu aztertzen ditu. Frogatzen du haren obrak barnetik duela jarraipena eta Xahok -haren denborako beste idazleek bezala- Historiaren Filosofia antolatzea entseaitu dela. Haren historiaren sorkuntzaren ezezkorraren oinarria borroka da, Ekiaren Haurrak (hegoaldeko gizakiak: Euskaldunak eta beste hegoaldeko gizakiak) eta (Gaueko Haurrak: Keltoak eta beste iparraldeko gizakiak. Agurtzekoa da Xabier Zabaltzak egin duena, bereziki bere elkartean «Agosti Xahoren adiskideak» zuberotar handiaren obra ezagutarazten baitu. 2011. urtean, Xabier Zabaltzak Agosti Xahoz bi liburuxkaren idazlea izan da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentuak argitaratuak: bat euskaraz *Agosti Xaho Aitzindari bakartia 1811-1858* (28 or.) eta bestea gaztelaniaz eta frantsesez *Augustin Chaho 1811-1858. Precursor incomprendido. Un précurseur incompris* (50 or.).

Gipuzkoako abokata eta hautetsia dena **Xabier Ezeizabarrenak** Donostiarrak, **Augustin Chaho: abertzaletasuna ta Foruak, edo Eskubide Historikoen sortzaile bat** («Augustin Chaho: l'abertzalisme et les Fors, ou un fondateur des Droits Historiques») aztertu du bereziki delako *Voyage en Navarre* argitalpenaren ondotik, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria hartuz, nola Xaho Foruen eta euskal populuaren Zuzenbide Historikoen begiralea izan den. Haren obrak gaurkotasuna erakusten du eta Xaho gizon ernea eta baita ere gizon idekia munduari agertzen zauku, biak batean.

Joseph Zabalok¹³ **Aitor, père des voyants** («Aitor, Igarleen aita») artikuluan erakusten du nola Xahok euskal ohiduren mitoak sartzen dituen esoterismo egiturari: baitezpadako hastapeneko lehen gizakia eta hizkuntza, askatasun hezgaizta, garbitasun suntsiezina, burujabetasunari lotua. Xahoren gogoia ez da judu-kristau sinesteaz hazia baina bai esoterismo ohiduretatik¹⁴. Burua argitzen du Denboretako eta Adinetako esoterismo

12. Ohartaraziko dugu Jean Crouzet-en liburua Baionako hargin-beltzez, jadanik aipatua, 1848ko gertakarietaz eta Bigarren Errepublikaz Baionan, ulertzeko baitezpadakoa dela, René Cuzacq-en bi artikuluen irakurketa, « Baiona 1848an (Zati askatuak) », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko irailaren 23, 26, 28-29 eta 30 eta 1935ko urriaren 3 eta 8a. René Cuzacq-ek dio Xahoz: « *Ez direa, bestalde, Baionan izan den partido errepublikoaren sortzailearen inguruan Bigarren Errepublikaren hilabeteak eta urteak itzultzen?* » René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République. Augustin Chaho en Octobre 1848 », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko irailaren 23a.

13. Aita Joseph Zabalo bertzeak bertze liburu garrantzitsu baten idazlea da *Augustin Chaho ou l'irritzina du matin basque* (Atlantica, Biarritz, 1999, 219 or.).

14. Jean-Claude Drouinen lanak ohartarazi behar ditugu esoterismo gaietaz eta Xahoz: « L'ésotérisme d'Augustin Chaho. Cosmologie, histoire et politique au XIX^e s. », *Bulletin de la Société des Sciences*, ...

argibidetik nahiz eta bere adierazpenak ez diren beti biziki argi. Lan jakintsuenekin aitzineko mitologieta, Xaho protestantismoaren eta hargin beltzaren ohiduran aurkitzen da, Antoine Court de Gébelin (1767-1825) eta beste protestante batekin, Cevennes aldeko idazlea, filologoa, itxia eta ozitanista Antoine Fabre d'Olivet (1767-1825) eta hari gerlaren ideia hartzen dio Iparraldeko basak Hegoaldeko populu askatuen aurka. Fabre d'Olivet nahi bazen izan «Okzitaniako ossian», Xaho nahi zen izan «Baskoniako ossian»? Dena den Joseph Zabalorentzat, Xaho ez da «Aitorren semea eta aita» bakarrik, «Aitor berriz haragiztatatua, berpiztua» da.

Elixabete Zubillaga idazleak Xahoren **Voyage en Navarre** liburua gerlako berri emaila bezala erakusten digu. Bidaia hasi zuen 1835ko martxoan eta liburua Parisen agertu zen 1836ko hastapenean. Xahok ez ditu 25 urte oraino eta gurezat *Voyage en Navarre* liburua da hobekienik eraikia dena, eta bururatua. 18 eguneko bidaia da karlisten eremuan matxinatua: Xaho abiatzen da Parisetik martxoaren 15ean; Baionan eta gero Saran da martxoaren 24an; 25ean Beran, gero Lesakan eta Goizuetan; Ezkurran gelditzen da apirilaren 2a arte; apirilaren 3an Huizin, gero Arruizen. Apirilaren 7an Lekunberri, omen elkarriketa bat ukan zuela Zumalakarregi aitzindariarekin (bainan askoren arabera elkarriketa Xahoren ametsetan izan zen bakarrik). Apirilaren 10ean azkenean, Nafarroa uzten du.

Marie-Andrée Ouret da egun proiektu honen arduraduna: «Euskal funts dokumentalak sarean sartzeara eta balorizatzea», proiektu garrantzitsua aurkitzen dena «Euskal Herriko Hitzarmena 2007-2013», hala nola Estatua, Akitania, Departamendua, Baionako hiria, Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua partaideak dituen. Erran behar da leku onean dela gaia aipatzeko: Baionako mediatekan aurkitzen diren Agosti Xahoren iturriak - **Les sources concernant Augustin Chaho à la Médiathèque de Bayonne**. Xahok ukitu dituen gai guztiak aipatzen ditu (euskararen ikerketa, erlijioen filosofia, euskal historia, eskualdetasuna, esoterismoa, teoria politikoa, etc.), eta baita ere izan duen eragina Baionako prentsan. Agosti Xahoren obra guztiak miatzen ditu (garai-kideen lanak: 1870 baino leheneko lanak) haren obrak izendatu aitzin, argitalpen guztiak aipatuz bereziki beste liburutegietan direnak hala nola Euskaltzaindian, Bainako Euskal Museoan edo oraino Frantziako Liburutegi Nazionalan. Aldizkariak ez ditu ahanzi, *L'Ariel* lehen lerroan (azpiztitulu ezberdinekin banan banan) 1844tik 1852 arte edo esku izkribu (bakan) batzuk.

Gure hitzaldian, **Agosti Xaho eta abertzaletasuna - Augustin Chaho et le Nationalisme Basque**, entseiatu gira erakustea nola zuberotarra abertzale eta xehazki erraiteko ezkerreko abertzale gisa izaiten (ikusten?) ahal den. Iduritzen zaigu Xaho abertzaletasunaren sortzailea ez baldin bada ere (dudarik gabe guretzat Sabino Arana izan delakotz), hala ere izan da -aitziniakusle argia eta berezia- euskal aberri baten eta Bidasoaren bi aldeak elkarri lotuak usnatu zuena. Bestalde, Justo Garaten baieztasuna, Xaho «lehen euskaldun sozialista» izan daitekeelakoa, gehiegizkoa da gurezat. Xaho ez zen sozialista. Bistan dena ezkerreko gizona, aurrerakoa, menditar errepublikanoa, «radikal-muturrekoa» izan dela, baina haren erradikaltasuna ez da nahasi behar sozialismoarekin: bere borroka ez

...

Lettres et Arts de Bayonne, 1973, n° 129, 265-277 or. eta « La place de la philosophie des Révélations d'Augustin Chaho (1835) dans l'histoire des idées au XIX^e s », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 181-1982, n° 137 eta 138, 389-399 or.

zen egiazko demokraziari buruzko borroka politikoa eta haren sozial borroka kapitalismoaren egiturak desagiteko asmoa ez zuen.

Nahiz eta eskaera ainitz egin, **Fermin Arkotxak** egin dituen bi hitzaldien idatziak ez ditugu eskuratu, bata euskaraz, **Agosti Xaho, euskaldun kazetari bat, Uztaileko Monarkitik, Louis Napoleon Bonaparten estatu kolpera** («Augustin Chaho, un journaliste basque de la Monarchie de Juillet au Coup d'Etat de Louis-Napoléon Bonaparte») eta bestea frantsesez **Permanence et/ou évolution des principes politiques d'Augustin Chaho (1811-1858)** («Agosti Xahoren printzipio politikoaren iraunkortasuna edota bilakaera (1811-1858)»). Ainitz dolutzen zaigu.

Azken hitza utziko dugu René Cuzacq-eri, Xahoren obraren beste miresle bat:

Nolako gizon bitxia eta idekia den Atharraztar Euskaldun plaza gizona, iduzkiari parez pare begiratzen zuena eta bere nortasun arraroak eta bereziak bekaizkeriak altxatzen zituenaren alderdian! Burua gora, Xaho beti zuzen, batzutan laudorioak eta herrak altxatzen zituenak, deneri ihardokitzen zuen, bere idazteko dohainarengatik edo kazetari hika-mikazale gogorarengatik. Luma ezpata bezain ontsa erabiliz, dohaintsu hegoaldeko jeinu ederragatik, desberdintasun arraroaz, buru soil erromantikoa mendearen semea, mintzatzen eta idazten zuen hizkuntza miagarria... dena garbi, gogo-argitasunaz, eta ezin konparatuzko zuzentasunaz¹⁵.

Jean-Claude Larronde

15. René Cuzacq, Bayonne en 1848, « Fragments détachés », *Le Sud-Ouest Républicain*, 1935ko ekainaren 3a.

PRESENTATION

A l'occasion du deux-centième anniversaire de sa naissance, la Société d'Études Basques - Eusko Ikaskuntza a décidé d'organiser en octobre 2011 un Colloque en l'honneur d'Augustin Chaho à Bayonne.

Pourquoi à Bayonne plutôt que dans une commune de la Soule, par exemple, sa province d'origine? C'est que d'une part, d'autres hommages y avaient lieu et que d'autre part, Bayonne a quelques titres à faire valoir pour revendiquer l'héritage spirituel du tardésien d'origine. Augustin Chaho y vécut de 1844 à sa mort en 1858, à l'exception d'une année (1852-1853) passée en exil forcé à Vitoria-Gasteiz. Le grand historien de Bayonne, René Cuzacq écrivit :

Jamais encore Bayonne n'avait connu un écrivain de cette sorte ; jamais même les lettres bayonnaises n'ont eu à s'enorgueillir d'un nom aussi illustre que Chaho¹. [et aussi] Des personnalités de cette envergure... Bayonne en compte bien peu dans ses vieilles murailles. Et le nom d'Augustin Chaho demeure l'une des plus hautes gloires de la cité².

Il est en effet incontestable qu'Augustin Chaho demeure une des personnalités les plus riches et les plus attachantes de Bayonne et du Pays Basque au XIX^e s. Parmi ses multiples facettes, on peut évoquer le romantique féru d'ésotérisme, le prophète de la religion des Voyants, le partisan des carlistes en Pays Basque péninsulaire et l'homme de gauche, l'« ultra radical » en Pays Basque continental, l'écrivain prolixe auteur d'une vingtaine d'ouvrages, le grand érudit même si son érudition paraît parfois brouillonne et confuse, le journaliste polémiste au remarquable talent littéraire et satirique et à la plume mordante et ironique à souhait, sans oublier bien entendu le défenseur enthousiaste et intraitable de l'euskara.

Les principaux épisodes de sa vie sont bien connus mais il n'est pas inutile de les rappeler brièvement : fils d'un huissier de Tardets (Haute-Soule), il est né dans ce village le 10 octobre 1811 ; en 1830, on le trouve étudiant à Paris où bientôt il fréquente les cercles romantiques et les salons littéraires dont celui de Charles Nodier plus que les bancs de la Faculté. Il se consacre à l'écriture et publie à Paris deux œuvres maîtresses alors qu'il n'a pas encore 25 ans : un opuscule de 35 pages : *Paroles d'un Bizkaïen aux libéraux de la Reine Christine* en 1834 et un livre de plus de 450 pages : *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques 1830-1835*, en 1836.

A partir de 1844, il s'installe à Bayonne et va rapidement devenir un des personnages importants de la vie politique bayonnaise ; très critique envers la Monarchie de Juillet et Louis-Philippe, il est le fondateur, le rédacteur en chef et le directeur du journal *L'Ariel*

1. René Cuzacq, « Bayonne en 1848 », *Le Sud-Ouest Républicain*, 3 Juin 1935.

2. René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République », *Le Sud-Ouest Républicain*, 8 Octobre 1935.

qui avec des sous-titres divers –*Courrier des Pyrénées* (1844-1845), *Le Courrier de Cantabrie et de Navarre* (1845), *Le Courrier de Vasconie* (1846-1848), *Le Républicain de Vasconie* (1848-1852)– paraît d'octobre 1844 à février 1852. Les polémiques de Chaho notamment avec le journal *L'Eclaireur des Pyrénées* qu'il appelle « L'Eteignoir des Pyrénées » sont restées célèbres.

Parallèlement, il publie à Paris dans les domaines de la philosophie et de l'ésotérisme trois œuvres capitales : *Paroles d'un Voyant* (1834), *Philosophie des Révélation*s (1835) et *Philosophie des religions comparées* (1848).

Les recherches sur le Pays Basque ne sont pas moins importantes. Elles sont historiques : *Histoire primitive des Euskariens-Basques* (1847) écrit en collaboration avec son ami le Vicomte de Belzunce, touristiques : *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan. Itinéraire pittoresque* (1855), mais surtout linguistiques : *La guerre des alphabets : règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français, espagnol et latin* (1856). Il a l'immense mérite de fonder le premier journal intégralement rédigé en langue basque : *Uscal-Herrico Gaset*a qui se présente comme un supplément de *L'Ariel* et dont seulement deux numéros paraîtront (30 juin 1848 ; 25 juillet 1848).

Sur le plan politique, les années les plus importantes de Chaho sont celles de la Révolution de 1848 ainsi que l'année suivante qui marquent les débuts de la Seconde République.

Augustin Chaho sera avec son journal *L'Ariel*, un acteur important de la Révolution de Février 1848 à Bayonne ; René Cuzacq écrira :

Comment rester insensible à l'âme de feu d'Augustin Chaho ? Ce serait au contraire manquer à la plus élémentaire vérité historique de ne pas faire ressortir ses élancements, sa puissance, la magie de son verbe et, avant tout, l'ardente et désintéressée conviction qui guide cette grande figure... De sa plume intrépide et vibrante, Chaho ne cesse de dominer les événements de 1848 à Bayonne³.

Certes, il échoue aux élections à la Constituante du 23 avril 1848 qui se déroulent dans le cadre du département des Basses-Pyrénées, ne recueillant que quelques succès d'estime à Bayonne et en Soule, comme il échoue à l'élection partielle du 4 juin 1848 ; à l'élection présidentielle du 10 décembre 1848, il fait une campagne active en faveur de Ledru-Rollin, le candidat radical. Ces élections voient le triomphe du prince Louis-Napoléon Bonaparte et Ledru-Rollin ne recueille que 4 % des suffrages dans l'Hexagone.

Cependant, Chaho enregistre quelques succès notables : il est élu en mars 1848 et réélu en mai 1849, commandant du 1er Bataillon de La Garde Nationale de Bayonne ; il est élu aussi conseiller municipal de Bayonne en juillet 1848 et conseiller général du canton de Tardets en août 1848.

3. René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République », *Le Sud-Ouest Républicain*, 23 Septembre 1935.

La grande occasion perdue par Chaho se situe à l'élection législative du 13 Mai 1849 ; une semaine avant le vote, Chaho fut victime d'un grave accident, près de Pau ; les chevaux s'étant emballés, sa voiture avait versé. Chaho fut relevé avec des blessures importantes à la tête, dont il gardera d'ailleurs par la suite des séquelles. Les rumeurs même de la mort de Chaho avaient couru. Malgré cela, Chaho n'échoue que de très peu, à 130 voix près. Il faut dire que le contexte politique non plus ne lui était pas favorable, puisque sur 10 députés élus dans le département des Basses-Pyrénées, ce furent 9 réactionnaires qui furent élus et un seul républicain (Michel Renaud).

Chaho se présentera encore à l'élection législative de février 1852 mais dans un contexte politique encore plus défavorable, il n'obtient plus qu'environ 10 % des suffrages. Napoléon III le force à l'exil durant une année. Il revient à Bayonne en 1853, s'engageant expressément à ne plus faire de politique. Il décède à Bayonne le 23 octobre 1858, à l'âge de 47 ans. Le bascologue Julien Vinson dira qu'il fut le premier Basque à avoir eu des obsèques civiles ; son enterrement fut suivi au Cimetière Saint-Léon par un millier de personnes.

A Bayonne, il fallut attendre les élections municipales des 4 et 11 mai 1884, puis les élections municipales partielles des 28 mars et 5 avril 1885 pour voir triompher la liste du Comité Républicain⁴. Dès lors, les conditions étaient réunies pour que le nom d'Augustin Chaho fut donné à une voie de Bayonne ; ce fut chose faite lors de la séance du Conseil Municipal du 9 janvier 1886 qui donna le nom de « Quai Augustin Chaho » à l'ancien « Quai des Cordeliers. »⁵

Mais c'est bien peu de choses en vérité pour alimenter le souvenir bayonnais.

Au reste, si les grands épisodes de la vie de Chaho sont relativement bien connus, que savons-nous en profondeur de sa personnalité ? Nous ignorons bien des choses comme le note Joseph Zabalo dans sa communication « en l'absence presque complète de correspondance, sans journal intime, sans confidences de ses contemporains... ».

Le même auteur ajoute : « Ostentatoire, vantard, bruyant et caché, secret, muet : un curieux personnage... ».

Pour percer quelques mystères de cette personnalité et révéler certains épisodes moins connus, il conviendrait de dépouiller de façon exhaustive la presse bayonnaise et celle du département des Basses-Pyrénées dans les années 1844-1852, un travail qui n'a pas été réalisé à ce jour⁶.

4. Jean-Claude Larronde, « Un siècle d'élections municipales à Bayonne (1884-1983), *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* », 1983, p. 160-170.

5. Iker Edme Larrechea, *L'engagement politique d'Augustin Xaho durant la Seconde République*, Master 1ère année, T.E.R. en Histoire Contemporaine, U.F.R. de Lettres, Département d'Histoire, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Pau, 2006, p. 88-91.

6. Fermin Arkotxa sous le titre *Augustin Chaho (1811-1858), parcours d'un homme de lettres basque de la Monarchie de Juillet au Second Empire* prépare actuellement une thèse d'Histoire Contemporaine à l'Université de Paris 1 Panthéon-Sorbonne et au sein du Centre de Recherche en Histoire du XIX^e s. de la Sorbonne et du CNRS.

Que savons-nous du Chaho franc-maçon (il a adhéré à la Loge « La Parfaite Réunion » en 1846) à part les quelques pages laissées par Jean Crouzet ?⁷

Que savons-nous de la vie privée de Chaho ? Très peu de choses. Joseph Zabalo parle de son homosexualité⁸ mais sans aucune preuve. L'écrivain navarrais José María de Azcona pour sa part a laissé entendre à demi-mots que Chaho avait eu au sein même de la famille Lespès qui l'avait recueilli et hébergé à Bayonne, un fils naturel :

Il fut hébergé avec beaucoup d'affections dans la maison de M. Lespès et il répondit à ces bienfaits avec une affection peut-être excessive et peu respectueuse, surtout vis à vis d'une des personnes de cette famille qui fut la sienne durant sa vie... Il y a déjà de nombreuses années, j'ai visité M. Paul Lespès à Bayonne. Chaho avait dédié à Lespès une poésie en l'appelant *hijo mío* (à mon fils). Lespès la conservait dans un album de vers et de dessins originaux du grand philosophe souletin⁹.

On l'aura compris, beaucoup de choses restent à découvrir concernant le Tardésien d'origine et Bayonnais d'adoption.

La Société d'Études Basques *Eusko Ikaskuntza* avait bien en tête d'essayer de combler quelques –unes des lacunes en réunissant le samedi 8 octobre 2011 –à trois jours près, deux cents ans après la naissance de Chaho– au Musée Basque de Bayonne¹⁰, neuf spécialistes de l'oeuvre de Chaho pour cet *Agosti Xahori Omenaldia – Hommage à Augustin Chaho*.

Nul n'était plus qualifié que **Jean-Baptiste Coyos Etxebarne**, académicien basque, souletin né à Mauléon pour nous parler de **Agosti Xahoren proposamenak euskararen ortografiaz** (« Les règles d'orthographe basque proposées par Augustin Chaho »). Ces règles

7. Jean Crouzet, *Bayonne entre l'Équerre et le Compas*, Tome II, Jean Curutchet. Les Editions Harriet, Bayonne, 1987, p. 116-118 et p. 163-183.

8. Joseph Zabalo, *Augustin Chaho ou l'Irrintzina du matin basque*, Atlantica, Biarritz, 1999, p. 207.

9. José Ma. De Azcona, « Joseph Augustin Chaho », *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, Año IV, Cuaderno 4º, 1948, p. 505-506. [La traduction est de l'auteur de cette Présentation, JCL.]. Pierre-Paul Lespès (Paul Lespès) est né le 4 août 1846 à Bayonne. Son acte de naissance (extrait n° 239 de l'année 1846) mentionne comme père Pierre Lespès, 33ans, marchand papetier, demeurant rue Pont Mayou (aujourd'hui Victor Hugo) n° 7 et comme mère son épouse Félicité Catherine Léglon. Augustin Chaho, « 33ans [sic], Homme de lettres » a signé en qualité de témoin, ce qui ne manque pas de saveur, s'il s'agit de son propre fils. Paul Lespès que René Cuzacq appelle pudiquement « l'héritier spirituel » de Chaho (*Le Sud-Ouest Républicain*, 8 octobre 1935) et dont Eugène Goyheneche était persuadé qu'il était bien le fils de Chaho (conversations avec l'auteur de cette Présentation) fut élève au Lycée de Pau où il fut condisciple du poète Lautréamont, puis étudiant à la Faculté de Droit de Paris en 1866 avant d'être avocat, juge d'instruction à Bayonne en avril 1881 et enfin Conseiller à la Cour d'Appel de Pau. Il est décédé à Bayonne le 11 avril 1935. (Voir *Le Courrier de Bayonne* des 12, 15, et 16 Avril 1935).

10. Nos plus vifs remerciements en notre nom personnel comme au nom de la Société d'Études Basques *Eusko Ikaskuntza* à notre ami Rafa Zulaika, Directeur du Musée Basque de Bayonne qui a accueilli ce Colloque et qui de plus à cette occasion a organisé au Musée, une exposition concernant les ouvrages et documents de Chaho possédés par le Musée ; Rafa Zulaika a aussi participé de façon active au bon déroulement de la journée. Nos remerciements aussi à la Municipalité de Bayonne (Jean-René Etchegaray, Premier Adjoint chargé de la Culture) et au Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques qui ont bien voulu aider financièrement l'organisation de ce colloque.

ont été proposées dans deux articles de *L'Ariel* de 1845 (16 février et 28 septembre) et surtout dans son important ouvrage paru à Bayonne en 1856 : *La guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français, espagnol et latin*, livre suivi d'un dictionnaire que Chaho n'aura pas le temps de terminer. Ces propositions de Chaho concernant l'orthographe de la langue basque venaient après celles de deux abbés Martin Duhalde (1745-1804) et Jean-Pierre Darrigol (1790-1829) et s'ajoutèrent à celles qu'à la même époque formulait son contemporain, l'abbé Martin Hiribarren (1810-1866) avec lequel Chaho entretenait une polémique toute amicale au point de lui faire le surprenant aveu : « J'aime le clergé basque... »¹¹.

Xipri Arbelbide, dans sa communication **Xaho eta Bigarren Errepublikak Baionan** (« Chaho et la Seconde République à Bayonne ») aborde un aspect important de la vie de Chaho. On sait le rôle capital qu'a joué à partir des journées de Février 1848, Chaho à Bayonne avec notamment la tribune qu'était pour lui son journal *L'Ariel*. L'auteur montre les principaux épisodes de cette brève Seconde République non seulement à Bayonne mais dans quelques villes et villages du Pays Basque et analyse successivement les élections à l'Assemblée Constituante du 23 avril 1848, l'élection présidentielle du 10 décembre 1848 et les élections législatives du 13 mai 1849. La communication se termine sur quelques notes consacrées à l'ami de Chaho, Honoré Dindaburu, notaire, maire de Bunus et Conseiller général du canton d'Iholdy¹².

Dans sa communication **Agosti Xaho eta Historiaren Filosofia** (« Augustin Chaho et la Philosophie de l'Histoire »), **Xabier Zabaltza Pérez-Nievas**, historien et écrivain navarrais, né à Tudela, analyse quelques aspects importants de son idéologie. Il soutient que son oeuvre a une cohérence interne et que Chaho –comme d'autres auteurs de son époque– a tenté d'élaborer une Philosophie de l'Histoire. Le fondement de sa conception historique pessimiste est la lutte entre les Enfants du Soleil (les peuples du Sud ; les Basques et les autres peuples méridionaux) et les Enfants de la Nuit (les peuples du Nord ; les Celtes et les autres peuples septentrionaux). Il convient de saluer l'action de Xabier Zabaltza et de son association « Agosti Xahoren Adiskideak » qui a pour but de faire connaître l'oeuvre du grand souletin. En cette année-anniversaire 2011, Xabier Zabaltza a été de plus l'auteur de deux opuscules consacrés à Augustin Chaho et publiés par le Département de Culture du Gouvernement Basque : une édition en euskara *Agosti*

11. Pierre Lhande, « L'abbé Martin Hiribarren et son Dictionnaire Basque » *Gure Herria*, Buruila-Septembre 1925, N°9, p. 499. Dans ce même article, Pierre Lhande indique qu'il a sous ses yeux « dix à douze lettres » d'Augustin Chaho à l'abbé Martin Hiribarren (p. 495). Où se trouvent aujourd'hui ces lettres ? Elles paraissent d'un grand intérêt. Dans l'une d'elles, Augustin Chaho, après avoir parlé –lui souvent présenté comme un anti-clérical virulent– de son « affection pour le clergé basque et ses compatriotes » ajoute : Oui, cher poète, il y a du bon dans le sang euskarien, puisque de prêtre à philosophe ou libre penseur, la différence d'opinions ne détruit pas les plus nobles sentiments d'humanité et de fraternité. »... (p. 500).

12. On signalera qu'outre le livre de Jean Crouzet sur la franc-maçonnerie à Bayonne, déjà cité, est essentielle pour la compréhension des événements de 1848 et de la Seconde République à Bayonne, la lecture des deux séries d'articles de René Cuzacq, « Bayonne en 1848 (Fragments détachés) », *Le Sud-Ouest Républicain*, 3, 4, 11, 12, 13 et 15 Juin 1935 et « Bayonne sous la Seconde République, *Le Sud-Ouest Républicain*, 23, 26, 28-29 et 30 septembre 1935, 3 et 8 Octobre 1935. René Cuzacq écrit à propos de Chaho : « N'est-ce pas d'ailleurs autour de celui qui fut à Bayonne l'ancêtre du parti républicain que tourne l'histoire bayonnaise des années et des mois de la Seconde République ? » (René Cuzacq, « Bayonne sous la Seconde République. Augustin Chaho en Octobre 1848 », *Le Sud-Ouest Républicain*, 23 septembre 1935.

Xaho Aitzindari bakartia 1811-1858 (28 p) et une édition en castillan et français *Augustin Chaho 1811-1858. Precursor incomprendido. Un précurseur incompris* (50 p).

Le professeur, avocat et parlementaire foral du Gipuzkoa **Xabier Ezeizabarrena**, de Donostia-Saint Sébastien dans **Augustin Chaho : abertzaletasuna ta Foruak, edo Eskubide Historikoen sortzaile bat** (Augustin Chaho : l'abertzalisme et les Fors, ou un fondateur des Droits Historiques »), a étudié surtout à partir du *Voyage en Navarre* et se plaçant en Navarre et en Pays Basque continental de quelle façon Chaho peut être considéré aujourd'hui comme le défenseur des Fors et des Droits Historiques du peuple basque. En cela, son œuvre reste d'une grande actualité et Chaho nous apparaît à la fois comme un homme d'action mais aussi comme une personne ouverte au monde.

Joseph Zabalo¹³ avec **Aitor, père des voyants** montre comment Chaho introduit dans le schéma ésotériste les mythes de la tradition basque : primitivité absolue du peuple et de sa langue, liberté indomptable, pureté indéfectible, attachement à l'indépendance. La pensée de Chaho n'est pas nourrie de la foi judéo-chrétienne mais puise dans la tradition ésotériste¹⁴. Il s'inspire de la théorie ésotériste des Temps et des Ages même si ses démonstrations ne sont pas toujours très claires. Avec ses travaux d'érudition sur les anciennes mythologies, Chaho se place dans la tradition du protestant et franc-maçon Antoine Court de Gébelin (1725-1784) et d'un autre protestant, l'écrivain cévenol, le philologue, occultiste et occitaniste Antoine Fabre d'Olivet (1767-1825) auquel il emprunte l'idée de la guerre des barbares du Nord contre les peuples libres du Sud. Si Fabre d'Olivet se voulait être « l'Ossian de L'Occitanie », Chaho ne voulut-il pas être « l'Ossian de la Vasconie » ? En tous cas, pour Joseph Zabalo, Chaho n'est pas seulement le « fils et père d'Aitor », il est « Aitor réincarné, ressuscité ! ».

Elixabete Zubillaga dans son *Voyage en Navarre de Chaho* nous décrit ce livre comme un véritable reportage de guerre. Le voyage eut lieu en mars 1835 et le livre parut à Paris au début de 1836. Chaho n'a pas encore 25 ans et pourtant *Le Voyage en Navarre* est pour nous son livre le mieux construit, le plus abouti. Il s'agit d'un voyage de 18 jours en territoire carliste insurgé : Chaho part de Paris le 15 mars ; il est à Bayonne puis Sare le 24 mars ; le 25, il est à Vera puis à Lesaca et Goizueta ; il demeure à Ezcurra jusqu'au 2 avril ; le 3 avril, il est à Huici puis à Arruiz. Le 7 avril, à Lecumberry, il aurait eu une entrevue avec le général Zumalakarregui (mais on sait que beaucoup de commentateurs pensent que cette entrevue n'a eu lieu que dans l'imagination de Chaho). Le 10 avril enfin, il quitte la Navarre.

Marie-André Ouret est actuellement chargée de mission du projet intitulé : « Mettre en réseau et valoriser les fonds documentaires basques », important projet qui se place dans le cadre du « Contrat Territorial Pays Basque 2007-2013 » et qui a pour partenaires l'Etat, la Région, le Département, la Ville de Bayonne, le Conseil de Développement et le Conseil

13. L'abbé Joseph Zabalo est notamment l'auteur d'un livre important *Augustin Chaho ou l'irrintzina du matin basque* (Atlantica, Biarritz, 1999, 219 p).

14. Il convient de rappeler les travaux de Jean-Claude Drouin sur ce thème de l'ésotérisme et Chaho : « L'ésotérisme d'Augustin Chaho. Cosmologie, histoire et politique au XIX^e s. », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1973, n° 129, p. 265-277 et « La place de la philosophie des Révélations d'Augustin Chaho (1835) dans l'histoire des idées au XIX^e s », *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1981-1982, n° 137 et 138, p. 389-399.

des Elus. C'est dire qu'elle était bien placée pour traiter le sujet : **Les sources concernant Augustin Chaho à la Médiathèque de Bayonne**. Elle envisage tous les domaines approchés par Chaho (étude de la langue basque, philosophie des religions, histoire basque, régionalisme, ésotérisme, théorie politique etc...) ainsi que son rôle dans la presse bayonnaise. Elle passe en revue tout d'abord les oeuvres concernant Augustin Chaho (travaux des contemporains ; travaux postérieurs à 1970) avant d'énumérer ses ouvrages en mentionnant les éditions notamment antérieures présentes dans d'autres bibliothèques comme celle d'*Euskaltzaindia*, du Musée Basque de Bayonne ou encore de la BNF. Elle n'a garde d'oublier les journaux au premier rang desquels *L'Ariel* (avec ses successifs sous-titres) de 1844 à 1852 ou encore quelques (rares) manuscrits.

Ce que nous avons tenté de faire dans notre communication **Augustin Chaho et le Nationalisme Basque**, c'est de voir en quoi le souletin peut être considéré comme un patriote basque et plus précisément comme un patriote basque de gauche. Il nous apparaît que si Chaho n'est pas le fondateur du nationalisme basque (rôle qui incontestablement pour nous appartient à Sabino Arana), il a eu du moins –en visionnaire brillant et non-conformiste–, l'intuition d'une nation basque unie et solidaire des deux côtés de la Bidassoa. Par ailleurs, l'assertion de Justo Garate selon lequel Chaho serait « le premier socialiste basque » est pour nous tout à fait abusive car Chaho ne fut pas socialiste. Ce fut certes un homme de gauche, un progressiste aux idées avancées, un républicain montagnard, un radical ou selon la formule de l'homme politique de l'époque duquel il se rapprochait le plus, Ledru-Rollin, un « ultra-radical » mais son radicalisme ne saurait se confondre avec le socialisme : son combat est un combat politique tendant à l'établissement d'une véritable démocratie et non un combat social visant à l'abrogation du système capitaliste.

Malgré notre insistance et nos démarches répétées, il n'a pas été possible de recueillir pour publication dans cet ouvrage le texte des deux interventions de **Fermin Arkotxa**, l'une en euskara **Agosti Xaho, euskaldun kazetari bat, Uztaileko Monarkiatik, Louis Napoleon Bonaparten estatu kolpera** (« Augustin Chaho, un journaliste basque de la Monarchie de Juillet au Coup d'Etat de Louis-Napoléon Bonaparte ») et l'autre en français **Permanence et/ou évolution des principes politiques d'Augustin Chaho (1811-1858)**. Nous le regrettons vivement.

Nous laisserons le mot de la fin à René Cuzacq, un autre admirateur de l'œuvre de Chaho :

Quelle étrange et curieuse figure que celle du fier Basque Euskarien de Tardets, qui regardait le soleil en face et dont l'originale et étrange personnalité soulevait jusque dans son parti de sourdes jalousies ! La tête haute, Chaho allait droit devant lui, soulevant les enthousiasmes et les haines, s'imposant à tous par son talent littéraire ou sa rude polémique de journaliste. Maniant la plume comme l'épée, doué pour sa cause de la plus belle ardeur méridionale, par un étrange contraste, ce romantique échevelé qui était si bien le fils de son siècle, parlait et écrivait une langue admirable... toute de netteté, d'une lucidité et d'une justesse incomparables...¹⁵

Jean-Claude Larronde

15. René Cuzacq, « Bayonne en 1848 (Fragments détachés) », Le Sud-Ouest Républicain, 3 Juin 1935.